BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5301

EBAZPENA, 2011ko irailaren 30ekoa, Bulego Judizial eta Fiskaleko zuzendariarena, Tolosako barruti judizialeko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa funtzionamenduan jartzeko eguna ezartzeko dena.

Tolosako barruti judizialeko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa sortzen duen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko otsailaren 7ko Aginduaren Azken Xedapenetako Lehenengoaren arabera, zerbitzu hau funtzionamenduan jarriko da behin barruti judizialeko langileak akoplatzeko prozesua bukatuta.

Akoplatzeko prozedura 2011ko irailaren 14ko Ebazpenaren bitartez itxi ondoren, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Tolosako barruti judizialaren Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa funtzionamenduan jartzeko eguna 2011ko azaroaren 21a ezartzea.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen. Eta, beraz, horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari, ebazpena Justiziako intraneten argitaratu eta hilabeteko epean.

Hirugarrena.– Tolosako barruti judizialeko Bulego Judizial berriaren antolamendu zehatza eta bere Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorraren eta Betearazpenekoaren oinarrizko funtzionamendu-arauak zehazten dituen 2011ko otsailaren 9ko Ebazpenaren akatsa zuzentzea. Ondorioz, eginbideak eta Bake Epaitegiei dagokion 10. artikuluko lehen puntuko hurrengo esaldi hau ezabatzen da: «Abaltzizketa, Alegia, Altzo, Amezketa, Baliarrain, Ikastegieta eta Orendaingo udalerrietan Abaltzizketan dagoen Udal Elkarteko Bake Epaitegiak».

Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez onartutzat hartuko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 30a.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendaria,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.